



Iritziak

Sendatu ala sendotu



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Ez dira gauza bera sendatu eta sendotu, inondik ere. Pairatzen ari garen pandemia honetatik sendatuta irtetea omen zen guztion helburu deklaratu, baina beste xede indartsuago bat gailendu zaio, eta “Sendoago irteten gara” kanpaina zabalaz bete ditu Espainiako gobernuak berak Estatu osoko komunikabideen lehen orrialdeak eta pantailak.

Aitorpen hau oso esanguratsua da, zalantzarik gabe. Argi uzten baitu, modu horretan, zein den gobernu espainiarrak duen ardura printzipala: ez herritar guztion egoera klinikoa, baizik eta Estatuaren beraren osasun egoera sendotzea, Estatu espainiar batu bakar goitik beherakoari tinko eustea.

Izan ere, Gobernu espainiarraren jokabide estrategikoa gardena izaten ari da, zentzu horretan, osasun krisi larria nabarmendu zenetik hona. Gogoratu ditzagun hartutako neurriak: lehenik eta behin, gobernu bera indartu eta ahal guztidun bihurtu, goitik behera jokatzeko botere guztiak bereganatuz (alarma egoera famatua medio); ondoren, gobernuaren eguneroko jokabide “sanitarioan” Armada, Guardia Zibila zein Polizia mota guztiak ardatz bihurtu; horrez gain, erabaki nagusien gune zentrala Madrilen kokatu, eta bertako gobernu, parlamentu, komunikabide, epaitegi nagusi guztiak gaitu, aktibatu, gainontzeko herrialdeetakoak itzalean lokartuta utziaz. Esan daiteke, zinez, pandemiaren birusa bera baino zabal eta sendoago

Horixe baita egia, guretzat garrantza bada ere. Estatu espainiarra sendoago irteten dela azken hilabeteotako krisi sakonetik, eta Espainia horretatik kanpo, Estatu libre independentea nahi dugunok, aldiz, makalduta

hedatu dutela azken hilabeteotan, Estatu osoan zehar, beste birus maltzur bat: zentralizazioarena, “Espainia nazio bakarra” birusa, Madrilen epizentroa izan eta Estatuko lurralde guztietara intentsitate handiz hedatu dutena.

Orain eta horrela bai ulergarri egiten zaigu “Sendoago irteten gara” kanpaina maltzur horren esanahia. Horixe baita egia, guretzat garrantza bada ere. Estatu espainiarra sendoago irteten dela azken hilabeteotako krisi sakonetik, eta Espainia horretatik kanpo, Estatu libre independentea nahi dugunok, aldiz, makalduta.

Nola eta zergatik gertatzen ari da azken hau? Gobernu espainiarraren estrategia horri, alde edo moldez, bidea erraztu egin diogulako, sarritan traba seniorik ipini gabe, eta, batez ere, beste-lako alternatibarik eskaini gabe. PSOE/

UPren gobernu progresista delakoa *legitimazio-transferentzia bikoitzaz* baliatu da kasu honetan.

Osasun publikoaren izenean eta interes sanitario orokorra aitzakiatuz, Estatuaren egitura indartsu zehatz bat legitimatzeko egin du lehen transferentzia. Operazio honen kapitulu esanguratsuak izan dira, besteak beste, Orwellek berak mirestuko lukeen Estatu-bozeramale Anaia Nagusi bihurtu duen Fernando Simon, zeinen atzetik disimuluan gelditu diren *factotum* nagusiak, besteak beste Felipe seigarrena edo Pedro Sánchez; berdin, diskurtso ideologikoan asmatu duten “birusak ez du mugarik”, zentralizatorako tresna demagogiko baliotsua, nahiz eta gero, adibidez, Euskal Herria erdibitzen duen muga itxi. Gure nazio batasuna, “*Route barrée*” (bide itxia) delako, bistan da egunotan Izpegiko mugan zein beste guztietan. Beraz, osasunaren izenean, arlo guztietako erabaki nagusi guztiak Madrilen (edo Parisen) hartuko dira, orain pandemia garaian, eta batez ere jendea sendatu eta Estatu bera sendotzen den unetik aurrera.

Bigarren legitimazio-transferentzia politikan eta instituzio politikoetan gertatu da zuzenean: Estatu zehatz horren izenean “gobernu progresista” agertzen zaigunean, balizko izaera progresistaren azpian Estatu helburu horiek bere egin dituen. Eraginkorra gertatzen ari da horretan, alternatibak eta aurkakotasunak sarritan abstentzio bihurtu arte. Zer pentsatu ematen du, bai. ●